



Lehiaren
Euskal Agintaritza

Autoridad Vasca
de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

LEHIAREN EUSKAL AGINTARITZAK BIDAIARIEN GARRAIOKO BEDERATZI ENPRESA IKUSKATU DITU LEHIAREN ARLOKO ARAU-HAUSTE LARRIEN ZANTZUAK DIRELA ETA

Ikuskapenak LEAko funtzionarioek gidatu dituzte, Ertzaintzaren laguntza teknikoarekin. Ikuskapenen zabaltasuna dela eta, erkidegoetako lehiaren agintaritzetako eta MLBNko langileek ere parte hartu dute.

Bilbo, 2015eko abenduaren 4a.

Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA) ikuskapenak egin ditu Euskadiko bidaiarien garraioko bederatzi enpresen egoitzetan.

Ikuskapenak LEAko funtzionarioek gidatu dituzte, Ertzaintzako agenteen laguntzarekin. Halaber, ikuskapenen zabaltasuna dela eta, Agencia de Defensa de la Competencia de Andalucía, Autoritat Catalana de Competència, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionala eta Consello Galego da Competencia erakundeetako langileek ere parte hartu dute.

Sarrereren eta ikuskapenen helburua hau izan da: frogak aurkitzea Euskadiko bidaiarien garraioko merkatuan dauden lehiaren aurkako jokabideen zantzuak berresteko. Jokabide horiek merkatu horretan aritzen diren enpresa batzuek egin dituzte, eta balizko merkatu-banaketa bati buruzkoak dira.

Jarduera hau Lehiaren Defentsari buruzko Legearen arau-hauste baten ikerketaren barruan dago. Ez du ikerketaren emaitza aurreikusten, ezta ikuskatutako enpresen errua ere.

Lehiatzaileen arteko merkatu-banaketako akordioak lehiaren defentsari buruzko legeriaren arau-hauste oso larriak dira eta enpresa arau-hausleen negozio-bolumenaren %1en isunak ekar ditzakete.



Jokabide horien ikerketa LEAren lehentasunetako bat da, euskal kontsumitzaileengan eta Euskadiko merkatuen funtzionamendu zuzenean duten eraginagatik.

Ikertutako jokabideekin zerikusia duen edozein enpresa isuna ordaintzetik salbuetsita egon daiteke, edo isunaren zenbatekoa murriz dakiok horri, betiere froga berriak aurkezten baldin baditu.

Lehiaren Euskal Agintaritza Administrazioako izaera administratiboko erakunde autonomoa da, eta erakunde- eta funtzio-autonomia du bere eginkizunak betetzeko. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatu, bermatu eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduera ekonomikoei dagokienez.